

DIRU-SARRERAK

Proiektua aurrera ateratzeko, gu lauok 20.000 euroko kapital kopuru bat jarri beharko dugu: hasierako gastuak ordaintzeko, terrenoaren, bungalow-en, argindarraren erosketa... Ondoren, diru-laguntzak jasotzea espero dugu (aurrerago azalduko dira). Behin proiektua aurrera aterata, kanpinera joandako jendearekin ordainduko ditugu gastuak. Ordaintzeko bi modu eskainiko ditugu: batetik, ordainketa-bakarreko diru-sarrerak izango ditugu, udan adibidez, gazteak denbora bat pasatzera etortzen direnean; eta, bestetik, ordainketa errepikariak, udaz beste egindako ekintzetarako bazkide egiten direnengandik jasotako ordainketak, esate baterako.



Horiez gain, alokairu eta renting bidez ere lortuko ditugu diru sarrerak. Norbaitek kanpina erabili nahi izangoz gero, taillerren bat edo erakusketaren bat egiteko, alokatu egingo diegu, diru kopuru bat lortuz. Izan ere, kanpin zerbitzua irekita udan edo denboraldi altuan soilik egon arren, gainerako hilabeteetan, aldikako irteera eta ekintzen bidez, zein tailer, erakusketa, entsegutoki, eta abarrerako alokairuak eskainiz, jasoko ditugu diru-sarrerak.

Urtean 60.000 euro bat irabaztea estimatzen dugu: ekaina uztaila, abuztua eta irailean 50.000 euro inguru eta neguan, 10.000 euro inguru. Etorkizunera begira, diru-sarrerak handitzea espero dugu, kanpineko zerbitzua hobetzen dugun heinean. Beraz, diru-sarrerak 100.000 eurora iristea espero dugu.



